



ARABAKO OSASUN  
MENTALEKO SAREA  
RED DE SALUD MENTAL  
DE ARABA

# M.O.T.Z.

Mendekotasunen Orientazio  
eta Tratamendu Zentroa  
zerbitzuen eskaintza





**MENDEKOTASUNEN ORIENTAZIO  
ETA TRATAMENDU ZENTROA**  
CENTRO DE ORIENTACIÓN Y  
TRATAMIENTO DE ADICCIONES

ARABAKO OSASUN  
MENTALEKO SAREA

RED DE SALUD  
MENTAL DE ALAVA

## ZER DA M.O.T.Z.?

1



MOTZ pertsonen arretarako zentro espezializatu da, eta substantzia psikoaktiboen (alkohola, heroina, kokaina, kanabisa...), joko patologikoaren eta mendetasun berrien (internet, mobilak...) gehiegikeria edo menpetasuna duten pertsonak biltzen ditu.

## ZER DA ORIENTABIDEA?

2

Orientabidea hiru arlotan banatzen dugu:

- Erabiltzaileari eta bere familiari emandako informazio zabala eta zuzena.
- Lehen mailako zerbitzu sanitarioen, hezkuntza zerbitzuen eta gizarte zerbitzuen bidezko koordinazio egokiari esker emandako prebentzioa.
- MOTZaren irakasbidea.



## ZER ADIKZIO TRATATZEN DITUGU?

3

Talde profesionalak mendetasuren arreta eta ondorioak ditu espezializazio, esaterako:

- Substantzia depresiboak (alkohola, heroina edo morfina bezalako opiazeoak, benzodiazepinak edo barbiturikoak bezalako psikofarmakoak).
- Substantzia estimulatzaileak (kokaina, anfetaminak, ketamina...).
- Substantzia haluzinogenoak (droga sintetikoak, LSD, eta abar).
- Kanabisa eta kanabisaren eratorriak.
- Joko patologikoa eta bestelako adikzioak.



## NOLAKO PROGRAMAK DITUGU?

4

Egun, asistentzia-eskaintzak 4 tratamendurako programa ditu:

- Anbulatoriotik kanpoko edo kanpoko kontsulten programa.
- Metadona eta Buprenorfinaren bidezko programa.
- Intoxikazioa eta ohitura saihesteko programa trinkoa.
- Abstinenziari eusteko eta medikazioa kudeatzeko programa.

Lau programak egituratuta eta koordinatuta daude, eta bakoitzak bere ezaugarriak eta berezitasunak ditu, atenditzen ditugun pertsonen beharrezanei erantzuna eman ahal izateko.



## OHITURA MODU ANBULATORION, SAIHESTEKO ETA ABSTINENTZIARI EUSTEKO PROGRAMA

4.1.

- Hainbat interbentzio terapeutikoen bidez, substantzien kontsumoa amaitzea.
- Adikzioak aldatu duen gizabanakoaren (pertsonala, familiara, gizarte-mailakoa) bizi-egoera konpontzea.
- Abordatze farmakologikoa, kontrola eta jarraipena:
  - Disuasioko medikazioaren bidezko tratamendua.
  - Naltrexona eta *anticraving* medikazioaren bidezko tratamendua.
  - Toxikoak ez kontsumitzeko tratamendu fisikoak.
  - Alkoholimetrien kontrola, tratamendu farmakologikoen ikuskerapena eta kontrola.
  - Gernuko toxikoak detektatzeko programa.
- Psikoterapia eta jarraipen kontsultak (banakakoak eta taldekakoak).
- Hezkuntza sanitarioa.
- Psikohezkuntzarako taldeak.
- Gizarte lana.



## METADONA ETA BUPRENORFINAREN BIDEZ EUSTEKO PROGRAMA

4.2.

- Programak Metadonaren, opiaceo sintetikoaren edo Buprenorfina/Naloxonaren bidezko tratamendu farmakologikoa erabiltzen du, opiaceoen kontsumoaren arazoak gutxitu, kendu edo leuntzeko eta substantzia opiaceoen menpeko pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.
- Gainera, programak banakako atentzio integrala eskaintzen du, eta, Metadona emateaz gain, tratamenduaren plana eratzen duten hainbat baliabide terapeutiko ere biltzen ditu.
- Abordatze terapeutikoa:
  - Tratamendu psikofarmakologikoa.
  - Toxikoen kontsumoa saihesteko tratamendu fisikoak.
  - Psikoterapia eta banakako jarraipenerako kontsultak.
  - Hezkuntza sanitarioa
  - Psikohezkuntzarako taldeak
- Gernuko toxikoak detektatzeko programa
- Gizarte lana.



## INTOXIKAZIOA ETA OHITURA SAIHESTEKO PROGRAMA TRINKOA

4.3.

Mendetasureak tratatzeko programa trinkoa, eguneko ospitalean eta etxebizitza terapeutikoan egiten dena.

- *Eguneko Ospitalea* ospitaleratzearen eta anbulatorioko tratamenduaren arteko egitura terapeutiko irekia da. Substantzia toxikoen abstinentsia lortzea da lehentasuneko helburua, oro har beste patologia psikiatriko batzuk eta paziente horien harreman familiar, sozial eta lanekoak aztoratu eta zaildu egiten dituzte-eta.

Era berean, honako helburu hauek ere lortu nahi ditu:

- Autonomia pertsonala edukitzea.
- Lotutako patologia psikiatrikoa egonkortzea.
- Aurre egiteko banakako eraginkortasunari lotutako estrategiak izatea eta abstinentsiari eusteko baliabideak lortzea.
- Komunikatzeko gaitasunak ikastea.
- Bizimodu osasuntsua izateko ohiturak garatzea.

- *Etxebizitza terapeutikoak* tratamendu-jarraipen handiagoa behar duten pazienteak ditu helburu. Honetaz baliatzeko, Eguneko Ospitaleak aurretiatzko eratorpena egin beharko du, pazienteak nolabaiteko egonkortasun psikopatologikoa lortu duenean.

Tresna horiei esker, pertsonak autonomia maila lortu ahal izango du, gizarteratu, familiarekin bizi izan eta lanera bueltatu ahal izateko.



Abordatze terapeutikoa:

- Desintoxikazioa.
- Tratamendu psikofarmakologikoa.
- Toxikoen kontsumoa saihesteko tratamenduak.
- Taldeko eta banakako psikoterapia.
- Entrenamendu kognitiboa.
- Familiako elkarrizketak.
- Estres egoerei aurre egiteko erlaxazio-taldea.
- Gaixoberritzeen prebentzioa.
- Hezkuntza sanitarioa.
- Psikohezkuntzarako taldeak.
- Gizarte lana.
- Kontsumoak kontrolatzeko taldeak.



## NORK OSATZEN DU TALDE TERAPEUTIKOA?

5

MOTZaren talde terapeutikoa diziplina anitzeko lan-taldea da, eta honako profesional hauek eratzen dute: zentroko bi arduradun nagusi, erizaintzako gainbegirale bat, psikiatrak, psikologoak, osasun mentaleko erizaiak aditu, monitorea, gizarte langileak eta langile administratiboak.

## NORI EMATEN DIOGU ZERBITZUA?

6

Araban bizi diren 16 urtetik gorako bizilagun guztiei ematen diegu zerbitzua, baita udalerrri hauetan bizi direnei ere.

Bizkaian:

*Otxandio*

*Ubidea*

*Orozko*

*Urduña*

Burgosen:

*Trebiñuko Konderria*



Salbuespenak salbuespen, 16 urtetik beherakoei ere zerbitzua ematen diegu, betiere Arabako Ume eta Gazteentzako Psikiatria Unitatearekin koordinatuta.

## NOLA SARTU MOTZan?

7

Zerbitzua jasotzeko, osasun txartel individuala (OTI) eduki behar da, eta Araban erroldatuta edo helbideratuta egon behar da.

Norberaren edo hirugarrenen ekimenaz joan daiteke zentrora: familia edo lagunak, osasun-zentroa, osasun mentaleko zentroa, lan osasunerako zerbitzuak eta beste batzuk (estamentu judizialak, elkarteak, urgentzietako zerbitzuak).

Kontsulta guztietan, aurreko zitaren sistema erabiliko da. Kontsulta lehenengo aldiz eskatzean, *abegi-kontsulta* jasoko dute. Gero, talde terapeutikoak erabakiko du zein den kasu bakoitzerako tratamendurik egokiena eta zer terapeutak garatuko duten.



# NOI A JARRI HARREMANETAN GUREKIN?

8

Guri zuzen dezake astelehenerik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.



Tokia: Vitoria-Gasteiz.  
Helbidea: Julián de Arrese 5  
PK: 01010  
Telefonoa: 945 29 40 40  
Faxa: 945 29 40 41  
e-posta: [cota.rsma@osakidetza.net](mailto:cota.rsma@osakidetza.net)





**MENEKOTASUNEN ORIENTAZIO  
ETA TRATAMENDU ZENTROA**  
CENTRO DE ORIENTACIÓN Y  
TRATAMIENTO DE ADICCIONES

ARABAKO OSASUN  
MENTALEKO SAREA

RED DE SALUD  
MENTAL DE ÁLAVA